

Oiartzunen hileta edo omenaldi zibilak arautzeko ordenantza

ATARIKOA

Estatu akonfesional batean, erakundeek pertsonen eta elkarteen askatasun ideologiko eta erlijiosoa eta gurtzarako askatasuna bermatu behar da, eta horretarako muga bakarra legeak ezartzen duen ordena publikoa errespetatzeko beharra da. Bestalde, gure gizartean aniztasun ideologikoa, erlijiosoa eta kulturala da nagusi, gizarte plurala baita, eta ohituren eta ekintza sozialen adierazpenak etengabe ari dira aldatzen.

Heriotzagatiko hileta edo omenaldi zibilak egiteko behar soziala sortu da, horrelako ekitaldia izatea erabaki duten herritarrei zeremonia duina eta pertsonala eskaintzeko beharretik, herritar horiek bizitza ulertzeko duten modua errespetat dadin. Udalaren bete beharra da gero eta handiagoa den behar sozial horri erantzutea.

Ordenantza honen helburua, beraz, Oñartzungo gizarte zibila osatzen duten familiek, adiskideek, erakundeek edo taldeek beren hildakoak omentzeko edo horiei agurtzeko egin nahi dituzten ekitaldiak baimentzeko arauak ematea da, hala, pertsona horien ekarpenak edo balio etikoak zein gizatiarrak onartzeko.

I. TITULUA

XEDEA

1. artikulua.

Ordenantza honen xedea Oñartzungo Udalerrian hildakoei omenaldi edo hileta zibila egiteko Udalaren lokalak erabiltzeko eta horretarako baimena jasotzeko arauak xedatzea da.

II. TITULUA

ERRESERBAK

2. artikulua.

Alkatetzak edo hori ordezkatzeko duen zinegotziak hileta zibiletarako edo omenaldietarako gordetako espazioak erabiltzea baimendu ahal izango du.

III. TITULUA

PROZEDURA HASTEA

3. artikulua.

Hileta zibil eta omenaldietarako gordetako espazioak erabiltzeko eskaerak Oiartzungo Udaletxeko Alkatetzara zuzenduko dira, Administrazio Publikoetako Prozedura Administratibo bateratuko urriaren 1eko 39/2015 Legeak ahalbideratutako moduen bitartez.

Agurra gorpua eramateko unean beilatokian bertan egingo bada eta ez bada aparteko azpiegitura gehigarriak aurreikusten, (esaterako megafonia) agurra beilatokiko egonaldiaren parte bezala kontsideratuko da eta ez da erreserbarik egin beharko. 6. artikuluan agertzen diren gainerako guneak erabiltzeko erreserba egin beharko da.

4. artikulua.

Erreserbak egiterakoan ondorengo datuak jaso beharko dira:

- a) Eskaera egin duen pertsonaren izen, abizen, helbide eta NAN zenbakia.
- b) Hildakoaren izen abizenak.
- c) Heriotza-ziurtagiria.
- d) Hileta edo omenaldia zibila aurrera eraman nahi den egun eta ordu lehentasunak.
- e) Eskaera leku eta datak.
- f) Eskatzailearen sinadura eta bere nortasuna egiaztatzen duen agiria, horretarako edozein bide erabiliz.
- g) Ekitaldiaren eta erabiliko den materialaren deskribapen laburra.
- h) Ekitaldiaren iraupena.
- i) Tasaren ordainketa demostratzen duen dokumentua, ordenantza fiskaletan honen aurre ordainketa aurreikusi bada.

IV. TITULUA

PROZEDURAREN INSTRUKZIOA

5. artikulua

Hileta edo omenaldi zibila egiteko eguna eta ordua Alkateak edo horren ordezkari zinegotziak onartuko ditu.

Instrukzioa eskaerak aurkeztu diren orden zorrotzean egingo da. Dena den aparteko eta presazko beharrian objektibo baten ondorioz, gerta daiteke eskaerak aurkeztutako ordena ez errespetatzea. Azaldutakoa gorabehera ondo motibatua egon beharko da arrazoia eta eskatutako ordutegia aldatu zaien eskatzaileei kontsulta egin beharko zaie.

6. artikulua

Hileta edo omenaldi zibila egiteko ondorengo lekuak baimentzen ditu udal honek:

- **Udaleko pleno aretoa.** Gehienezko aforoa: XXXX. Gune estalia da.
- **Arizmendieneko lorategia.** Gehienezko aforoa: XXXX. Gune irekia da.
- **Beilatokiko harrera gunea,** betiere beilatokian beste gorpurik ez badago edo beste hildakoaren hurbilekoen adostasuna jaso bada. Gehienezko aforoa: XXXX. Gune estalia da.
- **Beilatokiko atzeko belardia.** Gehienezko aforoa: gune irekia denez gero, ez dago aforo mugarik. Gune irekia da.

Gune guztiek betetzen dituzte irisgarritasun baldintzak.

Eraikinen irekiera eta itxiera Alkatetzatiko koordinatuko dira.

7. artikulua

Beilatokian izan ezik, hileta edo omenaldi zibilak ezin izango dira gorpua aurrean dela egin, hala ere hildakoaren errautsak dituen kutxa bertan dela egin ahalko dira.

8. artikulua.

Hileta edo omenaldi zibilak astelehenetik igandera egingo dira, horretarako beharrezkoak diren udal- baliabideak gaituko direlarik.

9. artikulua.

Hileta eta omenaldi zibilak egiteko ordutegia:

Astelehenetik-ostiralera arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara izango da.

Larunbatetan eta igandetan, goizez, 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldez, 16:00etatik 20:00etara.

Ordu tarte horietan itxi eta irekiko dira espazioak.

V. TITULUA

ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

10. artikulua.

Udal lokalen zainketa egokia bermatzeko, zeremonian parte hartuko dutenek ez dute berorietan kalterik edo galerarik eragin dezakeen inolako ekintzarik egingo.

11. artikulua

Esleitutako lokala modu bereziren batean egokitu nahi badute, aurrez eta nahikoa denboraz Udaleko arduradunari horren berri eman beharko diote, hartu beharreko erabakiak har ditzan; hala ere, lekuaren harmonia eta ezaugarriak errespetatu beharko dituzte beti, eta sor daitezkeen gastuak beren gain hartu beharko dituzte. Ekitaldia egiteko zerbitzu osagarriak interesdunaren kontura eta kargura izango dira, baina betiere, Oiartzungo Udalak ikuskatu ahalko ditu. Ekitaldia amaitutakoan erabilitako tokia hasieran zegoen moduan utzi beharko da, txukun eta egoki antolatuta.

12. artikulua

Eskaera egin duten pertsonak hileta edo omenaldi zibila egiteko ezarritakoaz aparteko beste espazio publiko bat erabili nahi badu, eskaera hori ere zehaztu beharko du. Udalak erabili nahi den espazio publikoa hesituko du, lehenago zehaztutako eskubideak eta betebeharrak betetzen badira, betiere.

13. artikulua

Ordenantza honetan aurreikusten ez den edozein alderdietarako, udal arduradunaren aginduak hartuko dira kontuan.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Oiartzungo Udaleko Alkateari baimena ematen zaio ordenantza hau aplikatzeko beharrezko diren jarduketa guztiak egin ditzan.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honen behin betiko testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasi eta 15 egunera jarriko da indarrean, eta Udalbatzak aldatzeko edo indargabetzeko erabakia hartu arte izango da indarrean

Antolakuntza Batzordeak, 2025eko martxoaren XXan egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

ALDEKO BOTOAK:

Oiartzunen, 2025eko martxoaren XXXan,
Batzordeko Idazkariak